

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (HUHEZI)

Albisteak

Larunbatean, hilak 23, ikasle ohien topaketa egingo dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean

2016/04/20

MUkide ikasle ohien elkarteak antolatuta, oraingo larunbatean, apirilak 23, ikasle ohien topaketa egingo dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Aurtengo ekitaldira deituta daude 2005-2006 ikasturtean ikasketak bukatutakoak. Horiekin batera, gainera, elkartuko dira 2000-2001, 2001-2002 eta 2002-2003 ikasturteetan egresatutakoak. Topaketa goizeko 11:00etan hasiko da Eskoriatzako campusean.

Begoña Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok egingo die ongi etorria bildutako ikasle ohiei, eta harrera labur eta informal baten ondoren, bildutakoek bisitatuko dituzte fakultateak dituen bi campusak, Eskoriatzako eta Aretxabaletakoak. Topaketa luntx batekin bukatuko da, 14:00ak aldera.

Topaketaren helburuak dira ikasle ohien eta unibertsitatearen arteko harremana berreskuratzea eta gune bat eskaintzea ikasleei antzinako ikaskideekin topo egiteko. Aurtengoa, topaketa hauen hirugarren edizioa izango da.

Topaketan parte hartzeko interesa dutenek web orri honetan eman beharko dute izena: [Ikasle ohien topaketa 2016](#).



lazko ekitaldira etorritako ikasle ohiak irakasleekin batera.